

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Alkatearen eginkizunak zinegotziaren esku uztea

Alkatearen 302/2019 Dekretua

Aurtengo abuztuaren 12tik 18ra bitartean, bi egun horietan barne, Zuiako udalerritik kanpora egongo naiz.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3. artikuluan xedatutakoa eta toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onesten dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 47.1. artikuluan xedatutakoa.

Honen bidez, eta legeak aitortzen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Agustín Otsoa Eribeko Landa zinegotzia izendatzea alkate eginkizunak betetzeko ni kanpoan naizen bitartean.

Bigarrena: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, udalbatzari horren berri ematea egiten den lehen osoko bilkuran, eta ALHAOn argitaratzea.

Murgia, 2019ko abuztuaren 9a

Alkate-lehendakaria

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA